

Jabier Aitziokoak badarabil zerbait

Iztatorren egin dut topo
Aitzioko lehengusuarekin
udazkeneko iluntze
amai ezinezkoan
herritarren artera bilduta
konpainia bila
zebilen
Monstradorearen kontra dago
kafexka bedeinkatua hartzen
Gaur ez du
Txato zaharraren-eta koadrilan
egoteko aldarterik
Badarabil zerbait osasunean
Ebakuntza egin berri diote
Baina badarabil zerbait buruan ere
Badarabil zerbait.
Lanari erretiroa eman?
Patxadaren iturria bilatu
lehenbailehen?
Badarabil zerbait.
Sukalde zaharreko sutondoa utzi
Mandioko ate atzetik hurritz-makila hartu
eskaileretatik artegi aldera jaitsi
eta ikuiluko atetik...
Errekaldera noa
estradatik zehar
Aittejaunak biztutako
arraukaren ondora
Alboko osinean ihia dotore dago
Har-gainean goroldioa
Gesalbeko gaztainadiko errekan

ez da ezkailurik
Astapotroen artean
Kapustarroa atzera aurrera dabil
Erreinuko nagusi
Arrubioak ez dio kasorik egiten
Tximiniatik gora kea Aitzion
Mandioko ate-gaina itxi beharra dago
Ekaitza dator eta.
Jabierren aztarrenik ez dago
Saguxar aldera zihoala esanda abiatu da
Honezkero itsasoan gaindi
Ostarteren batera igota izango da
Berriz ere, egongo gaittuk!

*Jexux Aizpurua Barandiaran
(Aitzarte, 2010eko abenduaren 24a)*